

TURISMOA

EUSKARA IKUSTEA, ENTZUTEA ETA TURISMO ESKAINTZAN NABARMENTZEA GUSTURA HARTU OHI DUTE BISITARI GEHIENEK

TURISMOAK GORA EGIN DUEN HAINBAT UDALERRI EUSKALDUNETAN, BISITARIEK EUSKARAREKIKO DUTEN IKUSPEGIA AZTERTU DU UEMAK, INKESTEN BIDEZ. JASOTAKO ERANTZUNETAN JOERA ARGIA IKUSTEN DA: BISITARI IA GUZTIEK ESKERTU EGITEN DUTE EUSKARA IKUSTEA EDO ENTZUTEA, ETA ASKOK BERARIAZ HAUTATZEN DU UDALERRI EUSKALDUNETARA ETORTZEA, EUSKARAREKIN TOPO EGITEKO. BISITARIREN LAURDEN BAT EUSKAL HERRITIK DATOR, ETA BESTE LAURDEN BAT HERRIALDE KATALANETATIK.



Zumaia, Bermeo eta Leitzaldean erantzun dituzte bisitariak galdetegiak, eta antzeko joerak agertu dira erantzun gehienetan: bisitarien %85ek eskertu egiten du euskarazko ikustea edo euskara entzutea. Argazkia: Baleike.

Zumaia, Bermeo eta Leitzako Turismo bulegoetan, landetxeetan eta ostatuetan bisitariak erantzundako 727 inkestaren datuak aztertu ditu Ahize hizkuntza aholkularitzak, UEMAKeskututa, udalerrri euskaldunetara heltzen diren bisitariak euskararekiko duten pertzepzioa ezagutzeko. Turismoak gora egin duen hainbat lekutan erdarak nabarmentzeko eta euskara ezkutatze joera sumatzen den arren, datuek nabarmen erakusten dute bisitariak eskertu egiten dutela euskararekin topo egitea.

Bisitarien %95ek adierazi du ez duela inolako arazorik izan euskararekin. Erdiek baino gehiagok (%54), berriz, euskararekin izan duten harremana atsegin dutela edo asko gustatu zaiela erantzun dute.

%85 ONDO KONPONDU DA EUSKARA HUTSEKO ERROTULUEKIN

Hizkuntza paisaiari dagokionez, bisitari gehienek (%85) eskertu egin dute eta ondo konpondu dira errotuluak euskara hutsean topatu dituztenean.

Erantzunak ulertzeko, bisitarien jatorriari arreta jartzea ere giltzarrietako bat da. Izan ere, bisitarien laurden bat Euskal Herritik bertatik heltzen da, beste laurden bat Herrialde Katalanetatik, beste laurden bat Espainiatik eta gainerakoak oro har Frantziatik, Alemaniatik, Eskoziatik, Ingalaterratik, Galesetik eta Herbeheretatik.

Bisitarien gehiengo handi baten jatorrizko herrietan, bi hizkuntza baino gehiago dira ofizialak, edo nolabaiteko batesa dute lurralde osoan edo zati batean.

ONDORIO NAGUSIA: EUSKARA ERAKARGARRIA DA BISITARIANTZAT

Eremu euskalduna

Bisitari gehienek badakite euskal hiztun asko bizi den gune batera datozela, eta espero dute euskararekin topo egitea.

Euskara, akuilu

Bisitari talde handi batentzat etortzeko arrazoia ere hori izan da: euskaraz bizi den herri baten bila etorri dira.

Desoeroso, oso gutxi

Oso gutxi izan dira desoeroso sentitu direnak. %95ak ez du inolako arazorik izan euskararekiko.

Askorentzat, atsegina

Askorentzat, aldiz, atsegina izan da, eta asko gustatu zaiela nabarmendu dute.

Euskararekin, eroso

Gehienak eroso sentitu dira euskararekin izan dituzten harremanetan. %85ek eskertu egin du hizkuntza paisaian euskara aurkitzea.

Bisitarien zati handi bat, bertakoa

Bisitarien zati esanguratsua Euskal Herritik bertatik dator. Beraz, negozioaren ikuspegitik ere kontuan hartzeko moduko

xede taldea da, premia zein eskubide linguistikoak dituen.

ONDORIOA: EUSKARA AMU ERAKARGARRIA DA BISITARIANTZAT

Beraz, laburbilduz: euskara bertara etortzeko faktore bereizgarria da bisitari askorentzat (%31), eta ez da etortzeko oztopoa gainontzeko ia guztientzat. Datuek erakusten dute turismoak gora egin duen eta bisitariak ugaritu diren lekuetan euskara ezkutatzeak ez du zentzurik bizikidetzaren ikuspegitik, ezta negozioaren ikuspegitik ere.